

**IRAKASKUNTZA-GIDA** 2019/20

**Ikastegia** 231 - Psikologia Fakultatea

**Zikl.** Zehaztugabea

**Plana** GPSICO20 - Psikologiako Gradua

**Ikastaroa** Zehaztugabea

**IRAKASGAIA**

25079 - Kulturantzatasuna eta Eleaniztasuna Gizarte Konplexuetan

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Pertsonen praktika soziokulturalak ikasteko, hau da, interakzio soziala, komunikazioa, negoziatioa, lankidetzeta, gatazka eta abar aztertzeko, pertsonak gizabanako moduan eta talde soziokulturalak partaide moduan ulertu behar dira. Pertsonen identitateak definitzeko jatorri etnikoaren, komunitate etnolinguistikoaren, generoaren arabera eta abar. Gizarte-psikologiak baliabide teoriko eta metodologikoak eskaintzen ditu aniztasun soziala eta kulturala bai komunitateetan bai erakundeetan ulertzeko. Ikuspuntu honetatik, talde soziokulturalak ez dira kategoria objektiboak, komunikazio praktikan sozialki eraikitzen diren eta behin eta berriro ere berreraikitzen diren kategoriak baizik. Ikasgaiak aniztasun soziala eta kulturala balio erantsi moduan integratzen ditu bai erakundeetan (eskola edo enpresak, kasu) bai komunitateetan garatzen den esku-hartze psikosozialean. Honetaz gain, baliabideak ematen ditu maila pertsonalean eta profesionalean gaur egungo gizartean dauden erroka handienetarikoei aurre egiteko, kohesio soziala eta bizikidetzeta, hain zuzen.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

- Gizartearen kulturantzatasunarekin eta eleaniztasunarekin eta banakoen kulturantzatasunarekin eta eleaniztasunarekin zerikusia duten funtsezko kontzeptuak eta teoria nahiz eredu psikosozialak ezagutzea
- Gizarteratzea eta bizikidetasuna faboratzen duten kulturantzatasunaren eta eleaniztasunaren ahalmenak ezagutzea
- Lortutako jakintzak ikerketan eta gizarteko esku hartzeetan aplikatzeko gai izatea
- Diziplina anitzeko eta kultura anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea
- Ahozko nahiz idatzizko txosten teknikoak egiteko gai izatea
- Kulturantzatasunari eta eleaniztasunari buruzko dokumentazio-iturriak erabiltzeko gai izatea, eta informazio eskuratzeko behar diren estrategiak menderatzen direla erakustea

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

**PROGRAMA TEORIKOA**

1 gaia.- Giza aniztasuna

- Diferentziaren eraikuntza
- Diskriminazioa
- Estigma
- Interakzio soziala eta komunikazioa

2 gaia.- Kultura eta balioak

- Balioen azterketa kultura ezberdinetan
- Schwartzen balioen sailkapena
- Garapen sozio-historikoa eta Inglehartzen balioen sailkapena

3 gaia.- Kultura eta ondorio psikosozialak

- Zer da kultura?
- Hofstederen proiektua
- Hofstederen dimentsioak: Indibidualismoa eta kolektibismoa, boterearekiko distantzia, ziurgabetasuna ekiditea, maskulinitatea eta feminitatea

4 gaia.- Selfaren eraikuntza kulturala: Kognizioa, motibazioa, emozioak

- Selfaren eraikuntza kulturala. Garapena
- Selfaren eraikuntza independentea eta elkarmenpekoa
- Selfaren eraikuntza eta bere ondorioak kognizioan eta motibazioan
- Selfaren eraikuntza eta bere ondorioak emozioetan eta ongizatean

5 gaia.- Komunikazioa eta elkarrekintza soziala

- Elkarrekintza soziala eta hizkuntza
- Kultura eta hizkuntza-testuinguru maila
- Kultura eta komunikazio estiloak
- Kultura, elkarrekintza soziala eta hizkuntzaren erabilera

6 gaia.- Akulturazio psikologikoa

- Identitate kulturala eta akulturazioa
- Akulturazio estrategiak

- Akulturazio estresa
- Migrazioa

7 gaia.- Identitate etnikoa eta hizkuntzaren erabilera

- Identitate etnikoa eta bizindar etnolinguiskoa
- Hiztun taldeekiko jarrerak
- Komunikazio bateratasunaren eta desberdintzearen oinarri psikosozialak
- Hizkuntza-portaera hizkuntza-ukipen egoeretan

8 gaia.- Bizikidetzeta

- Diferentzietan oinarritutako komunitatea
- Komunikazioa diferentzien komunitatean
- Inklusio morala

## PRAKTIKA EGITASMOA

1 JARDUERA: Giza aniztasuna

Helburua: Talde soziokultural &#8216;ezberdin&#8217; bati buruzko lana burutzea. Taldearen bizindarra deskribatuko da eta gizartean dauden talde horrenganako jarrerak, estigmatizaziora daramaten prozesu sozio-psikologikoak eta interakzio moduak landuko dira. Entregagaia: Informea. Gaitasunak: 1,2,3,4,5,6

2 JARDUERA: Balioak eta ezagutza

Helburua: Garrantzizkoa den gai eztabaidarri baten inguruko iritzi ezberdinak identifikatu eta deskribatu. Honetan oinarrituta, dimentsio sozio-psikologikoak, balio kulturalak eta pertsonalak eta gaiari dagozkion alderdi sozio-historikoak azertzen dira. Entregagaia: Informea eta ahozko aurkezpena. Gaitasunak: 1,2,3,4,5,6

3 JARDUERA: Ni kulturala

Helburua: Pertsonaren eraikuntza soziokulturalari buruzko lana egitea. Niaren esanahi kulturala lantzen da, bere garapenean parte hartzen duten faktoreak eta eraikuntza kulturalaren ondorioak motibazioan, kognizioan eta emozioetan. Entregagaia: Informea eta kontzeptu-mapa. Gaitasunak: 1,2,3,5

4 JARDUERA: Kultura, elkarrekintza soziala eta hizkuntza

Helburua: Eskolan ikusentzunezko materialetan aurkezten diren pertsonarteko eta taldearteko interakzioak aztertu. Jarduera honetan testuinguru kultural ezberdinetan aurkezten diren interakzioetan hizkuntza pragmatika, talde-arteko egoerak eta hizkuntza-portaerak aztertzen dira. Entregagaia: Kasuen azterketari buruzko informeak. Gaitasunak: 1,2,3

5 JARDUERA: Identitate etnokulturala eta akulturazioa

Helburua: Talde etnokulturalen arteko harreman moten inguruko lana burutzea. Eskolan egiten den talde dinamika batean asmatutako talde baten identitate etnokulturala zehazten da. Talde batek beste talde baten aginpean dagoen lurralde batera migratu behar dueneko historia aurkezten da, eta talde etnokulturek elkarren artean negoziaketak egin behar dituzte, akulturazio estrategiak aztertuz. Entregagaia: informea eta posterra. Gaitasunak: 1,2,3,4

6 JARDUERA: Ikasleriarekin adosten den jarduera

Helburua: Egunerokotasunean aurki daitekeen testu, pelikula edo berri baten inguruan egiten den hausnarketan/ eztabaidan edo informe labur batean oinarritzen den jarduera. Prentsan azaltzen den kasu baten lanketa egitea. Entregagaia: Informe laburra. Gaitasunak: 1,2,3,4,5,6

## METODOLOGIA

Ikasgaiaren ardatz nagusia jarduera praktikoak garatzea da. Jarduera hauen parte bat presentzialki egiten dira gelako praktiketean, tailerretan, ordenagailu praktiketean, landa praktiketean eta mintegietan. Saio praktikoaren helburua jardueren fitxak aurkeztea da, jardueraren garapena bideratzea, aholku ematea eta tutorizatzea eta aldi berean, elkarrizketen bitartez jardueren jarraipena egitea.

Bestalde, saio teorikoen helburua jarduera praktikoak garatu ahal izateko beharrezkoak diren baliabide teorikoak eskaintzea da. Saio teorikoaren zati bat edukien aurkezpena egitera bideratuta dago, eta saioaren beste zati batean ikasleriaren parte-hartzea sustatzeko antolatuko diren eztabaidak, albisteen azterketak, ariketak eta kontzeptuei buruzko galderak landuko dira. Saio teorikoetan ere, ikasleriaren parte-hartzeari jarraipena egingo zaio ebaluazio jarraia garatu ahal izateko.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	36	2	6		3		10		3
<b>Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.</b>	54	3	9		4,5		15		4,5

**Legenda:** M: Magistrala  
GL: Laborategiko p.  
TA: Tailerra  
S: Mintegia  
GO: Ordenagailuko p.  
TI: Tailer Ind.  
GA: Gelako p.  
GCL: P. klinikoak  
GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ahozko defentsa % 30
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Banakako lanak % 20
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 30
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasgaia gainditzeko bete behar diren baldintzak honakoak dira: a) Sei jardueren ebaluazio positiboa jaso eta b) Jardueren jarraipenean ebaluazio positiboa lortu.

Jardueren ebaluazio globalak %70a balio du. Jardueren jarraipena eskola teorikoetan eta praktikoetan egiten da eta ikasturte amaieran antolatzen den banakako elkarrizketan. Elkarrizketa honetan ikasleriarekin adosten da %30a ikasgaiaren erakutsitako konpromisoan oinarrituta.

Ikasle guztiek deialdi ofizialeko azken azterketan aurkezteko aukera dute. Azken azterketak 4 galdera ireki garatzea eskatzen du (%50). Praktika ebaluatzeko, jarduera praktikoekin lotutako informea eskatuko da (%50). Gutxieneko baldintza zati bakoitzean 5/10 nota lortzea da.

Irakasgai honetan, ikasleak etsamina deialdiari uko egiteko eskaria aurkeztuko ahal du fakultateko idazkaritza orokorrean, irakasleari igorritako eskaria eginik, gehien dela etsaminen aldi ofiziala hasi baino hamar egun lehenago.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

E-gela eskuragarri dagoen materiala

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

- Apodaka, E. (2004). Komunikazioaren gizarte psikologia. Bilbo: UEU.  
Azurmendi, M. J. (2000). Psicosociolingüística. Bilbao: UPV/EHU.  
Gudykunst, W. B. (2004). Bridging differences: Effective intergroup communication. California: Sage Publications.  
Páez, D. et al (2003). Psicología Social, Cultura y Educación. Madrid: Pearson.  
Smith, P. B., Bond, M. H., eta Kagitçibasi, Ç. (2006). Understanding social psychology across cultures. London: Sage Publications.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

- Azurmendi, M.-J. (2000). La vitalidad etnolingüística relativa subjetiva (VELS). La culturación (Modelo MIESC). La identidad social (IS). La identidad etnolingüística (IEL). In Azurmendi, M.-J., Psicosociolingüística. Bilbao: UPV/EHU.  
Berry, J.W. (2005). Conceptual Approaches to Acculturation. In K.M. Chon, P.B. Organista & G. Marin (eds.), Acculturation. Advances in Theory, Measurement and Applied Research. Washington, DC: American Psychological Association.  
Berry, J. W., Poortinga, Y. H., Segall, M. H., & Dasen, P. R. (2002). Cross-cultural psychology. Research and applications. Cambridge: Cambridge University Press.  
Bourhis, R. Y., Giles, H., y Rosenthal, D. (1981). Notes on the construction of a subjective vitality questionnaire for ethnolinguistic groups. Journal of Multilingual and Multicultural Development, 2, 144-155.  
Bradac, J. J., Cargile, A. C., y Hallett, J. S. (2001). Language attitudes: Retrospect, conspect, and prospect. En W. P. Robinson y H. Giles (Eds.), The new handbook of language and social psychology (pág. 137-155). Chichester: John Wiley and sons.  
Breugelmans, S. M. y Poortinga, Y. H. (2006). Emotion without a word: Shame and guilt among Rarámuri Indians and

Rural Javanese. *Journal of Personality and Social Psychology*, 91 (6), 1111-1122.

Brown, P., y Levinson, S. (1987). *Politeness: Some universals in language use*. Cambridge: Cambridge University Press.

Cousins, S. D. (1989). Culture and self-perception in Japan and the United States. *Journal of Personality and Social Psychology*, 56, 124-131.

Holtgraves, T. M. y Kashima, Y. (2007). Language, meaning, and social cognition. *Personality and Social Psychology Review*, 12 (1), 73-9

### **Aldizkariak**

Bat soziolinguistika aldizkaria

Uztaro

Gogoa

### **Interneteko helbide interesgarriak**

<http://www.ehu.es/pswparod/>

<http://geert-hofstede.com/countries.html>

<http://www.worldvaluessurvey.org/>

<http://www.7billionothers.org/es/testimonies/podcast>

<http://www.ikuspegi-inmigracion.net/eus/>

<http://www.mugak.eu/eu/nor-gara>

<http://turismoirresponsable.info/>

<http://www.emun.com/>

<http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1108>

<http://www.sil.org/>

<http://www.ialsp.org/conf.html>

<http://www.discourses.org/>

[http://www.adviceguide.org.uk/wales/discrimination\\_w.htm](http://www.adviceguide.org.uk/wales/discrimination_w.htm)

<http://knowledge.sagepub.com/view/multiculturalpsychology/SAGE.xml>

### **OHARRAK**